

BERDINTASUN PLANA

2013-2015 ikasturteak

IES DOLORES IBARRURI BHI
014010
ABANTO-ZIERBENA



AURKIBIDEA

Orrialdea

0. SARRERA	1
1. ARLOAK ETA HELBURUAK	1
1.1. HOBEKUNTZA ARLOAK	1
1.2. EKINTZAK	2
2. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	6

HISTORIKOA:

Proposamenaren aurkezpena	2013-05-06
Klaustroaren onarpena	xx-xx-xxxx
OOGren onarpena	xx-xx-xxxx
Berrikusketa 01	
Klaustroaren onarpena.....	xx-xx-xxxx
OOGren onarpena	xx-xx-xxxx

0. SARRERA

Berdintasuna plan hau Emakume-Berdintasunerako 4/2005 Legeak, Aurretiatzko Tituluan, 3. Artikuluan, hain zuzen ere, ezartzen dituen printzipio orokorretan oinarritzen da. Printzipio hauek hurrengoak dira:

- a) Tratu-berdintasuna.
- b) Aukera-berdintasuna.
- c) Aniztasun eta desberdintasunarekiko errespetua.
- d) Genero perspektibaren integrazioa¹.
- e) Akzio positiboa².
- f) Rol eta sexuaren araberako estereotipoen ezabapena.
- g) Ordezkaritza orekatua.
- h) Elkarlana eta koordinazioa.

BERDINTASUN PLANAK funtziona dezala, lan-programa bat, bere garapena bultzatzen duten pertsonak eta hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea izatea beharrezkoa da.

BERDINTASUN PLANA honen egitura ikastetxeko zuzendaritza, orientatzailea, berdintasunerako koordinatzailea eta ikasleen eta familien ordezkariaz osatuta egongo da, eta hartaz arduratuko den egitura bizikidetza behatokia izatea egokia ikusten dugu (AJA, 98. Art.)

Bizikidetza behatokiaren helburuen artean BERDINTASUN PLANEAN urteko aldi bakoitzerako ezarritako helburu eta ekimenak abiaraztea, koordinatzea eta ebaluatzea egongo dira.

Bizikidetza behatokia, gutxienez 4 aldiz bilduko da ikasturtean zehar planifikatutako jardueren segimendua egiteko eta helburuen lorpena era jarraituan ebaluatzeko.

BERDINTASUN PLAN honen helburuak eta jarduerak DOLORES IBARRURI BHIko hobekuntza planean jarriko dira, azken hau, urteko planaren zati bat izango delarik.

Urtero txosten bat egingo da BERDINTASUN PLANAREN betetze maila eta bere inpaktua azaltzeko, txosten hau Urteko Memoriari gehituko zaio.

1. ARLOAK ETA HELBURUAK

Atal honek BERDINTASUN PLANAREN helburuak garatzen ditu aurreko Diagnostikoan antzemandako hobetzeko alderdiak kontuan hartuz eta departamentuek ezarritako lehentasunei jarraituz.

1.1. HOBEKUNTZA ARLOAK

1.- Ikastetxean Berdintasuna gestionatzeko egitura bat sortzea.

2.- Zentroko pertsona guztien arteko hezibide oneko, estimuko eta generoarekin sentikorreko tratua bultzatzea.

¹ "Badakar helburuak eta desberdintasunak ezabatzea zuzendutako jokaera espezifikokoak gehitzea eta politika guztietako berdintasuna eta akzioak, maila guztietara eta bere plangintza-fase guztietan, egitean eta ebaluazioan, bultzatzea."

² "Akzio-programa bateko forma hartzen duen estrategia, aukera-berdintasuna gertaeretan ezartzera zuzenduta, praktika sozialen eta sistema sozialaren ondoriozko diskriminazioak zuzentzea edo aurre egitea baimentzen duten aldi baterako neurriek esker."

- 3.- Ikasleen artean emakume eta gizonen arteko berdintasuna arloan sentsibilitatea indartzea.
- 4.- Zonaldeko ekimenetan ikasleen parte hartzea bultzatzea.
- 5.- Erabiltzen ditugun hezkuntza-materialak, testu liburuak, etab. genero ikuspuntutik berrikustea.
- 6.- Hizkuntzaren berdintasunezko erabilerako sustatzea, erabilerako irizpide komunak ezarriz, gaztelania bereziki erabiltzerakoan.
- 7.- Dokumentazioa eta komunikazioa (familienganako zirkularrak, kartelak, irudiak, etab.) genero ikuspuntutik ikuskatzea.
- 8.- Lan eta familiaren arteko oreka lortzeko plana egitea.
- 9.- Berdintasuna arloan langile guztientzako formazio orokorrerako eta espezifikorako eguneratzeko neurriak sustatzea.
- 10.- Lan arriskuen prebentzioan genero ikuspuntua sartzea.

1.2. EKINTZAK

Plan hau garatzeko erabiliko diren tresnak eta ordena agertuko dira atal honetan.

Egingo dena zehaztuko dugu, bere gradua edo lehenetasuna eta bere denboralizazioa.

1. HELBURUA		Berdintasunaren kudeaketarako egitura izatea.		
EKINTZA	AZALPENA	NORI ZUZENDUA	NORTZUK INPLIKATUTA	DENBORA
1.1.	BERDINTASUN PLANA bultzatzeko eta inplementatzeko egitura sortzea.	Sektore guztiak	Bizikidetzak Behatokia	2013-2014
1.2.	BERDINTASUN PLANA garatzeko urteko plan bat egitea.	Sektore guztiak	Bizikidetzak Behatokia	2013-2014
1.3.	BERDINTASUN PLANAREN jarraipena eta ebaluazioa egitea.	Sektore guztiak	Bizikidetzak Behatokia	2013-2014
ADIERAZLEAK				
Egitura, sortuta. Zenbakia eta emakume eta gizonen postua egitura horretan, talde osoarekiko orekatuta. BERDINTASUN PLANA, eginda. Planaren jarraipenerako lau bilera, eginda. Planaren ebaluazioa eginda. Plana hobetzeko proposamen bilketa, eginda.				

2. HELBURUA		Zentroko pertsona guztien arteko hezibide oneko, estimuko eta generoarekin sentikorreko tratua bultzatzea.		
EKINTZA	AZALPENA	NORI ZUZENDUA	NORTZUK INPLIKATUTA	DENBORA
2.1.	Genero-indarkeriaren aurkako prebentzioaren eta sektore guztien erantzunkidetasunaren gaineko eztabaida foro bat proposatzea, berdintasuna, errespetua eta tolerantzia baloreak sustatzeko.	Ikasleak Irakasleak AZP	Zuzendaritza Orientatzailea Koordinatzailea	2013-2014
2.2.	Eguneroko tratuan tutoretzan landutako trebetasun sozialak inplementatzea, begirunezko eskaerak	Ikasleak Irakasleak AZP	Zuzendaritza Orientatzailea Koordinatzailea	2013-2015

	egiten ikasiz.			
2.3.	Jantokiko zaintzaileei ikasleekiko komunikazio-protokolo egokia proposatzea.	Jantokiko langileak	Zuzendaritza Orientatzailea Koordinatzailea	2013-2015
ADIERAZLEAK				
<p>Eztabaida egin da. Parte hartzaile kopurua eta ekarpenak, talde osoarekiko orekatuta. Ikasleen arteko, ikasle-irakaslearen arteko eta ikasle-AZPren arteko errespetu faltengatik jarraera ez egokien %25 beherapena. Adostutako komunikazio protokoloa, eginda.</p>				

3. HELBURUA		Ikasleen artean emakume eta gizonen arteko berdintasuna arloan sentsibilitatea indartzea.		
EKINTZA	AZALPENA	NORI ZUZENDUA	NORTZUK INPLIKATUTA	DENBORA
3.1.	Berdintasunaren sustapenerako jardueren antolaketa ikastetxeko ospakizunetan "Euskal kultur astea", "Eguberriak", eta abar.	Ikasleak	Ikasleak Tutoreak Proiektuen Koordinatzailea Orientatzailea Gelako ordezkariek Ikasketa Burua	2013-2014
3.2.	Berdintasun arloan sentsibilizaziorako eta bortizkeriaren aurkako ekintzak antolatzea: Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, eta Azaroaren 25, Emakumeenganazko Bortizkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna.	Ikasleak	Ikasleak Tutoreak Orientatzailea Udaletxeko Berdintasuna arduraduna.	2013-2014
3.3.	Trebetasun sozialen gaineko jarduerak egitea.	Ikasleak	Ikasleak tutoreak Orientatzailea	2013-2014
3.4.	Ikasle Laguntzaileen formazioa trebetasun sozialetan eta bitartekaritzan.	Ikasle laguntzaile	Ikasle laguntzaile Orientatzailea Bizikidetzak Koordinatzailea Bakeola	2013-2014
3.5.	Zirraren eta nesken eta mutilen arteko sentimenduen adierazpenaren gaineko jarduerak egitea.	Ikasleak	Tutoreak Orientatzailea Kanpo Zerbitzuak (Biko Arloak, Asunta Vidal)	2013-2014
ADIERAZLEAK				
<p>Egindako jardueren bilduma egin da. Ikasleen lanen bilketa eta erakusketa egin da. Parte-hartzaileen zenbakia eta generoa, talde osoarekiko orekatuta.</p>				

Bitartekaritzaren bidez landutako generoen kasuen %25 beherapena.
Formakuntza saioetan ikasleen ekarpenak eta galderak bildu dira.
Jarduera bakoitzean sektore desberdinek egindako ebaluazioaren gaineko datuak bildu dira.
Kanpoko agenteen gaineko ebaluazio galdetegia osatu da.
Galdetegiaren datuak eta ahozko iritziak jasotzen dira.

4. HELBURUA		Zonaldeko ekimenetan ikasleen parte hartzea bultzatzea.		
EKINTZA	AZALPENA	NORI ZUZENDUA	NORTZUK INPLIKATUTA	DENBORA
4.1.	Ikasleen partaidetza Beldur Barik izeneko programan.	Ikasleak	Ikasleak Tutoreak Orientatzailea	2013-2014
4.2.	Ikasleen partaidetza "Defentsa Pertsonala"ren tailerrean.	Ikasleak	Udaletxeko Gizarte Ekintza Orientatzailea	2013-2014
4.3.	Elkarteetatik edo instituzio desberdinetatik datozen gai honekiko erlazionaturik dauden jarduerak ikasleen artean zabaltzea.	Ikasleak	Ikasleak Irakasleak Orientatzailea	2013-2014
ADIERAZLEAK				
Beldur Barik programan parte hartzen duten ikasleen kopurua %25 igo da. Programa horretan sortutako materialak bildu eta erakutsi dira. Beste programa desberdinetan ikasleen partaidetza ikusi da. Programa horien iritzia jasotzen da galdetegiaren bidez.				

5. HELBURUA		Erabiltzen ditugun hezkuntza-materialak, testu liburuak, etab. genero ikuspuntutik berrikustea.		
EKINTZA	AZALPENA	NORI ZUZENDUA	NORTZUK INPLIKATUTA	DENBORA
5.1.	Genero ikuspuntutik erabilitako materialeko lagin baten berrikusi eta hobetzeko proposamenak idaztea.	Irakasleak	Zuzendaritza Orientatzailea Koordinatzailea	2013-2015
5.2.	Curriculumeko material berritzaileko erabiltzeko protokolo bat egitea.	Irakasleak	Zuzendaritza Orientatzailea Koordinatzailea	2014-2015
ADIERAZLEAK				
Curriculumeko material lagin bat berrikusi da. Egindako hobekuntza-proposamenak bildu dira. Curriculumeko materialak berritzeko protokolo bat egin da.				

6. HELBURUA		Hizkuntzaren berdintasunezko erabilerako sustatzea, erabilerako irizpide komunak ezarriz, gaztelania bereziki erabiltzerakoan.		
EKINTZA	AZALPENA	NORI ZUZENDUA	NORTZUK INPLIKATUTA	DENBORA
6.1.	Genero inguruko hizkuntza zalantzak jasotzeko eztabaida-foro bat irekitzea.	Sektore guztiak Zuzendaritza	Tutores-as Gaztelaniazko irakasleak Orientatzailea Koordinatzailea	2013-2014

6.2.	Zalantza horiek ebazteko gai horretan kualifikatutako pertsona bat gonbidatzea.	Sektore guztiak	Zuzendaritza Orientatzailea Koordinatzailea Gonbidatua	2013-2014
6.3.	Estilo-protokolo bat edo gida bat lantzea, hizkuntza arloan bai ahozkoan bai idatzian berdintasunezko erabileran hobetzen jarraitzeko.	Sektore guztiak	Zuzendaritza Orientatzailea Koordinatzailea	2014-2015
6.4.	Hizkuntza erabilerarako, genero perspektibatik jarraibideak gaztelaniako curriculumean sartzea.	Ikasleak	Gaztelaniazko irakasleak	2014-2015
ADIERAZLEAK				
<p>Eztabaida-foro bat egin da eta ekarpenak jaso dira. Gonbidatuarekin saioa egin da. Protokoloa egin da. Gaztelania hizkuntzaren curriculum aurreratu da.</p>				

7. HELBURUA		Dokumentazioa eta komunikazioa (familienganako zirkularrak, kartelak, irudiak, etab.) genero ikuspuntutik ikuskatzea.		
EKINTZA	AZALPENA	NORI ZUZENDUA	NORTZUK INPLIKATUTA	DENBORA
7.1.	Genero perspektibatik materiala berrikustea eta zuzentzea sortzen den heinean.	Sektore guztiak	Zuzendaritza Orientatzailea Koordinatzailea Tutoreak Irakasleak Ikasleak	2013-2014
7.2.	Institutura heltzen diren kartel, irudi eta publizitate-liburuxkak kontrolatu erakutsi baino lehen.	Sektore guztiak	Idazkaritza Irakasleak Orientatzailea Zuzendaritza	2013-2014
ADIERAZLEAK				
<p>Egindako dokumentuak berrikusi dira. Kartel, irudi, etab. berrikusi dira eta onartutako eta ez onartutakoen erregistroa egin da.</p>				

8. HELBURUA		Lan eta familiaren arteko oreka lortzeko plana egitea.		
EKINTZA	AZALPENA	NORI ZUZENDUA	NORTZUK INPLIKATUTA	DENBORA
8.1.	Kontziliazio-akordioa idaztea eta onartzea.	Institutuko langileak	Zuzendaritza Langileak	2014-2015
8.2.	Akordioa komunikatzea eta zabaltzea.	Institutuko langileak	Zuzendaritza Langileak	2014-2015
ADIERAZLEAK				
<p>Kontziliazio akordioa idatzi eta onartu da. Akordioa komunikatu eta zabaltu da.</p>				

9. HELBURUA	Berdintasuna arloan langile guztientzako formazio orokorrerako eta espezifikorako eguneratzeko neurriak sustatzea.
--------------------	--

EKINTZA	AZALPENA	NORI ZUZENDUA	NORTZUK INPLIKATUTA	DENBORA
9.1.	Berdintasun arloko formakuntza jarduerak zabaltzea (mintegi, jardunaldiak, ikastaroak, eta abar)	Institutuko langileak	Zuzendaritza Orientatzailea Koordinatzailea	2013-2015
9.2.	Institutuko Formakuntza Planean, genero-berdintasunaren gaineko aukera hezigarri desberdinak sartzea.	Institutuko langileak	Zuzendaritza Orientatzailea Koordinatzailea	2013-2015
ADIERAZLEAK				
Genero perspektibarekin lotutako jarduera hezigarriak zabaldu dira. Institutuan formakuntza saioak egin dira.				

10. HELBURUA		Lan arriskuen prebentzioan genero ikuspuntua sartzea.		
EKINTZA	AZALPENA	NORI ZUZENDUA	NORTZUK INPLIKATUTA	DENBORA
10.1.	Genero perspektibatik lan arriskuen zerrenda jasotzea.	Sektore guztiak	Zuzendaritza Lan Arriskuen koordinatzaile	2013-2014
10.2.	Genero perspektiba Arrisku Laboraleko Prebentzio Planean sartzea beharrezko ikusten bada	Sektore guztiak	Zuzendaritza Lan Arriskuen koordinatzaile	2014-2015
ADIERAZLEAK				
Genero perspektibatik lan arriskuei buruzko informazioa bildu eta aztertu da. Genero perspektiba Arrisku Laboraleko Prebentzio Planean erantsi da.				

2. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Bizikidetza Behatokiaren (4 bilera urteko) bilera saioetan ikasturte bakoitzean zehar landutako alderdiak, galdetegiak eta landutako protokoloak aztertuko dira eta hurrengo planean gehitzeko irten diren iradokizunak idatziz jasoko dira.